AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

417

AGINDUA, 2014ko urtarrilaren 20koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, M.ª Carmen Elorza Abascal andreak Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Zuzendaritzako goi kargudunaren idazkari izateari utz diezaiola xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoaren arabera eta lege honek egozten dizkidan aginpideez baliatuz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– M.ª Carmen Elorza Abascal andrea Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Zuzendaritzako goi kargudunaren idazkari kargutik kentzea (520010 kodea, 23 zenbakiko dotazioa. Eskerrak ematen zaizkio betetako zerbitzuengatik.

Bigarrena.– 2014ko urtarrilaren 21etik izango ditu ondorio administratiboak kargutik kentze honek.

Hirugarrena.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du eta, bere aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean, agindua eman duen organoari zuzenduta; edo bestela, Administraziorekiko Auzitarako Epaitegiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 20a.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
RICARDO GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA.